

## POESIA

## Barrena berotzea

## ITOTZEARI BELDURREZ LEHORTU GARA

Autorea: Kepa Luzarraga Learreta.

Argitaletxea: Autoekoitzia.

Orrialde kopurua: 85 orri.

Salneurria: 5 euro.

Alex URIARTE

T opikotzarra dirudi, baina ez da erraza hor kanpoko porlanezko oihanean bizirautea. Herri txikia gara; txikiak gain, zurruna eta ahul samarra ere bai. Baina ez gaude isolatuta: ez gara urez inguraturiko lehorgunea. Kanpoko influentzia zorrotz horrek, izan ere, egundoko eragina du gugan. Aitor dezagun: gure literatura, gure gizartea bezala, mundua bahitu duen kapitalismo basatiari doi-doi egokitzen zaio. Denak izan behar du super, hiper edo mega. Ez du balio esfortzuak, argitaletxeak baino; ezta ere materiak, liburu-azalaren lodierak baizik; gutxi du balio nortasunak, marrazkietako xehetasunen aldean.

Horregatik, biziki miresten ditut ezer gutxiarekin euren bidea urratzen duten egileak. Talde zapaldua dira, gure irlatxoko mastodontearen pean ostendurik. Isilpeko egile horietako bat Kepa Luzarraga

da (Mundaka, 1993). Bere poesiazko lehen lanak ("Itotzeari beldurrez lehortu gara") aspaldian urrun igartzen nuen poesia hurreratu dit.

Bizkaitarrak bere moldea egunerokotasunean ezartzen duela begitandu zait. Sarritan, poesia egiteko, ez da beharrezkoa urruneko munduetako distopia-egoeratarra jotzea; oinarria ohikoari beste begirada bat ematean datza, eta horixe da Luzarragari gehien laudatzen diodana: txikikerien xarma zukutzea.

Bere poesia, nire aburuz, bere bizitoki Mundaka bezalakoa da: itsastarra izanagatik, mendia hurbil du eta kaleko bizimodutik ere edaten du. Habitat nagusiak itsasoa eta lehorra dira. Lehenak itoarazi egiten gaitu; bigarrenak, oster, sikatu eragin. Dena dela, bien beharra dugu.

Azpmarratzekoa da mundakarraren olerkiei darien bizitasuna: haietako batzuek zeharkako irakurketen ateak zabalzabalik uzten dituzte; beste hainbatek, ordea, hausnarketa sakonak iradokitzen dituzte: «Bizitzaren esanahia? / Esan nahia edo Ezina ekinez egina / ekintzaileen lema / leloen leloa».

Gainera, zenbait testutan berben soinuekin jolasten du, nolabaiteko "kakofonia poetiko" efektuak erdietsiz; kasurako,



erlijioaren negozioa salatzen duen poeman otoitzetako "amen" hitza, ezin erakusgarriagoa den "hemen" berbagatik ordezkaten du: «Aitarene, semearen eta espiritu santuaren izenean, / hemen, / zioen abadeak, / poltsa seinatzen». Bikaina, zinez.

Obraren epizentroetako bat den itsasaz mintzatuz gero, autorearen harekiko atxikidura sumatu liteke: uraren gorakadak ekaitzak dakartza eta haiekin ezegonkortasuna; marearen beherakadek, berriz, armonia. Olerkiek olatu edo uhin

tankera dute: lana, poemaz poema, gora eta behera, harat-honat dabilen itsasaldia da; "Inkiszio modernoa" zein "Fedea eta arrazoa" moduko txute bizkorretatik "Askatasun garestia" nahiz "Gasolinaren negozioa" lako tempo geldodun zingiretara. Irakurketa-kadentziarekin eta erritmoekin jostatzea ere egile honen zigiluetako bat da.

Hasieran aipatutakoekin lotuko nuke iruzkin honen bukaera. Nire aburuz miregarriak dira argitaletxeen mundua errefusatu eta beraien kasa honen moduko ekarpen distiratsu bat sortzeko gai diren sortzaileak. Finean, gutxi batzuek zortedun izateari ez die men egiten eta autogestioz eta duintasun osoz bidean aurrera doaz.

Luzarragak esan legez, «poeta izatea / hori zortea, / tristurak salduz, / aberas-tea». Erakuskeriaren kontrako hautua da kostatar gazte honen ekina. «Gure iraultza poemari jarraiki, maindireen barruan, / gure iraultzan, / mundua sutan jarritz, / edo gutxienez, / elkar berotuz». Txanpon-hotzen diktadurapean, bereziak dira barrua berotzen diguten antsiolitiko literarioak, domeka arratsetan goreneko apaletik hartu eta mantapean gotortzen ditugunak.

## HAUR LITERATURA

## Ausardia

A

Lorena Martinez Oronoz

Denonartean, 2019

10 euro, 36 orrialde

Lore AGIRREZABAL

A lfabetoko lehen hizkia erabili du Lorena Martinez Oronoz ilustratzaileak album ilustratu honi izena emateko eta edukiz janzteko. "A" gorri-gorri bat. Bokal hori nahikoa izan du sortzaileak bai azalerako, bai istorio guztia azaltzeko. Ezin hori baino soilago, xeheago eta argiago izan. Horrekin adierazten du guztia. Horrekin, eta, bi pertsonaien ilustrazioekin, hondo zuri hutsen gainean lezto beltz lodiz marraztutako otso eta neskatoak batekin. Gorria «A» hizkiarentzat eta pertsonaien masailentzat –kontakizunaren amaieran baino agertuko ez direnak, damuaren, barkamenaren eta adiskidetzaren adierazle– erabili du soilik.

Hutsa bezain betea ikusten dut liburu zoragarri hau. Hasieran harrিতuta utzi ninduen: «A?». Ondoren: «A!». Eta azkenik: «Aaaa!» Harrigarria, benetan, hizki batek zenbat adieraz dezakeen.

Album ilustratu hau handia da bere txikian. Xehea, oso xehea, baina horretan

datza bere aberastasuna: bi pertsonaien arteko enkontrua, eztabaida, haserrea eta adiskidetzaren irudikatzen du, horretarako «A» hizki larriaren hotsa, oihua edota orroa soilik erabiliz. Hitz bakar bat bera ere irakurriko ez dugun arren, esanahiz betetako istorioa da. Daukan azalpen bakarra lehen orriaren aurrekoa da, bertan kontakizunaren laburpen bat erantsi baitote ia mutua den albumari. Lagungarri gerta dakiguke, baina askoz ere irakurketa libre, aberats, emankor eta dibertigarriagoa lor daiteke hori gabe.

Lehen orrian otsoa ikusiko dugu korrika gaizto aurpegia jarrita. Bigarrenean, neskatoa lasai eserita. Hurrengoan, otsoaren burua agertuko da orriaren ezkerrean eta neskatoak zerbait susmatuko du. Laugarren irudian otsoa neskari oldartuko zaio «A» ozen bat oihukatuz.

Horrainokoak esanda, eta, mendebaldeko literaturak otsoari eman izan dion rolak eraginda, erraz irudika dezakegu amaiera jakin bat. Baina, zorionez, neskato hau XXI. mendean sortu du Martinezek eta hasieran izutu egiten den arren, ondoren ausardiaz jokatzeko eta erantzun egiten dio beste «A» batez. Jarraian, nor baino nor hasiko

dira biak eztabaida bizian baina neskatoa otsoak baino ozenago oihu egiteko gai izango da. "Gaizkilea" mendean hartzearekin amaituko balitz ipuina, rolak aldatu baino ez lirateke egingo. Egileak, ordea, beste ekarpen bat egin nahi izan du eta ekaitzaren osteko barealdia irudikatu du, haserrealdien ondoren bien arteko gerturatzea irudikatuz.

Finean, esango nuke, handi eta txikiaren arteko tirabirak direla ardatz nagusi. Izan ere, pertsonaia bakoitzaren neurrian ez ezik, kontrazalera eraman dituen eserleku edo kutxa hutsetan ere nabarmendu du

hori Martinezek: otsoarena handia da, neskatoarena txikia. Horrez gain, hasierako izua gaudituta eta ausardiaz erantzuteko gaitasunaz ere badihardu. Are gehiago, erantzute hutsetik haratago doa istorioa; gertatutakoaz hitz egitera, elkar ulertzer, elkar onartzera garamatza. Bizitzan aurkitzen ditugun oztopo, traba edo arazoak gaudituta, aurrera egin eta beste posizio (kutxa) batean kokatzen garela ere iradoki nahi izan du.

Dena dela, bakoitzaren bizipenen arabera izango da irakurketa; joko handia ematen duen istorio irekia da, irakurleak adina esanahi eta interpretazio izan ditzakeena. Hainbat eta hainbat gai uki daitezke liburu honekin, batez ere, gure arteko harremanetan gertatzen diren eztabaida, liskar, haserrealdia, bazterte, jazarpen, ahalduntze eta abarren ingurukoak. Baina, baita horren osteko gerturatze, adiskidetz, onartze, barkatze eta aukera berrien bueltakoak ere.

Ez da Lorena Martinezek ("Maite dut", "Zortzi kolore") eta Denonartean argitaletxeak proposamen berri edo bereziak eskaintzen dizkiguten lehen aldia. Berezkoa dute Ausardia.

